

# Euskararen bidaia egin nahi duzu?

Etor zaitez Euskararen Etxera!



euskararen etxea



Euskararen Etxea Bilboko San Inazio auzoan dago eta beraren helburua **euskarari buruzko gune espezializatua** izatea da.

Eraikin honetan Euskararen Interpretazio Zentroa dago, eta honen ateak zabalik daude euskaltzaleentzat, ikerlariarentzat eta euskarari buruzko gaietan interesa izan dezaketen pertsona guztientzat.





# Euskararen Interpretazio Zentroa

Tren geltoki baten antzera girotuta dagoen gune honetan, euskararen bidaia denboran zehar islatu nahi izan da.

Euskararen Interpretazio Zentroaren asmoa modu atsegin eta zuzenean, euskarari buruzko oinarritzko eduki batzuk erakustea da.

Teknologia berriak erabili dira gure hizkuntzaren ezaugarri nabarmenenak publikoari modu errez eta entretenigarrian aurkezteko.

## Nori dago zuzenduta?

### Ikastetxeentzako ikustaldiak

Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikasleak. Bisitaldiak 20-25 ikasle inguruko taldeentzat antolatu dira eta gidari espezializatu batek zuzenduko ditu.

### Taldeetako ikustaldiak

Euskaltegietako ikasleak, helduen ikastegiak, eta abar. Ibilbidean zehar, erakusketako edukiei buruzko azalpenak emango dituen gidari espezializatu bat egongo da bisitariekin.

### Bakarkako ikustaldiak

Pantaila elkarreragileak daude erakusketan. Beraz norberak bere kabuz ere bisita egin dezake.



Interpretazio Zentroa

Ikus-entzunezko gela

## Informazio orokorra

### Ordutegia

Asteleheneretik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara.

Asteburuetan aurreko eskaera eginez.

### Erreserbak

info@azkuefundazioa.org edo 94.402.80.81 telefonoan

Zentroal **lau hizkuntzatan** (euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez) bisitatzeko aukera dago.

**Sarrera DOAKOA.**



## Metroa

San Inazio geltokia (Lekeitio irteera)

## Autobusak

### Bilbobus lineak

10, 13, 18, 71 Lehendakari Agirren gelditzen dira

### ● Bizkaibus lineak

A2314 (Bilbo-EHU) 151 Lehendakari Agirren gelditzen da.

### ● A3411/3413 (Aizkorri-Getxo-Bilbo)

154 Lehendakari Agirren gelditzen dira

www.azkuefundazioa.org

